

# OROTARIKO EUSKAL HIZTEGIAREN II. ALEAREN AURKEZPENA

J. L. Lizundia

Idazkariordea

Gipuzkoako Foru Diputazioaren areto nagusian, 1989.eko Martxoaren 16an, eguerdiko 12etan, bildu dira, mahaipuruan: Imanol Murua, Gipuzkoako Diputatu Nagusia; M.<sup>a</sup> Karmen Garmendia, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz Politikarako Idazkari Nagusia; Alberto Ansola, Arabako Diputatu Nagusi-ordea; Tomás Uribe-etxebarria, Bizkaiko Kultur Diputatua; J. Haritschelhar, Euskaltzainburua; J. M. Satrustegi, Idazkaria; J. A. Arana Martija, Diruzaina eta I. Sarasola, euskaltzaina eta *Orotariko Euskal Hiztegiaren* arduraduna.

Bertan dira, baita ere, José Ramón Peciña, Arabako Kultur Diputatua; José Luis Tellería, Gipuzkoako Kultur Diputatua; P. Altuna, A. Irigoien, J. M. Lekuona, J. San Martín eta L. Villasante, euskaltzainak; J. L. Lizundia, Idazkariordea; J. J. Zearreta, Ekonomi Eragilea; P. Arregi, M. Atxaga, M. Azkarate, G. Barandiaran, M.<sup>a</sup> P. Lasarte eta A. Sagarna, urgazleak; Josu Legina eta Xabier Goxeaskoetxea, Mensajero eta Desclée Argitaldiaren Ordezkariek; Jesús Campo, EJJeko Zuzendaria. Egunkari, aldizkari eta irratietako kazetariak ere bertan daude.

